

HAUR ETA GAZTEEN AISIALDIKO HEZKUNTZA-JARDUERETAKO BEGIRALE EDO ZUZENDARI TITULU OFIZIALA ESKURATZEKO IKASTAROAK EUSKARAZ EGITEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA 2023. URTERAKO

HITZAURREA

Hernaniko Udalak Hernanin haurrekin eta nerabeekin antolatzen diren aisialdiko hezkuntza-jardueretako eskaintza, elkarre, ikastaro eta programetan parte hartzen duten pertsonen prestakuntza sustatu nahi du. Gainera, Hernaniko haurren eta nerabeen aisia hezkuntza-balioetan oinarritzea du helburu. Horiek horrela, 2020 urteaz geroztik OinHerri Herri Hezitzaileen sareko partaide da. OinHerri Herri Hezitzaileak proposatzen duen eredia Zazpi kontzeptutan oinarritzen da. Zazpi kontzeptu horiek elkarrekin uztartzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek nahitaez elkarrekin joan behar dute. Lan-eremua eta xedea honela formulatu dira:

“Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.”

Hori horrela izan dadin, ezinbestekoa ikusten da Hernaniko gazteak haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako begirale edo zuzendari titulua lortzeko ikastaroak euskara hutsean eta Eusko Jaurlaritzak ofizialki onartutako zentroetan egin ditzaten sustatzea.

Dirulaguntzen deialdia 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita dago eta IV. lerro estrategikoan kokatua: Euskararen Sustapena. Dagokion helburu estrategikoa honako hau da: “gazteak aktibatzea eta motibatzea hainbat arlotan euskara erabiltzeko”.

I KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Xedea.

Deialdi honen helburua da haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako begirale edo zuzendari titulu ofiziala eskuratzeko ikastaroak euskaraz egiteko dirulaguntzak emateko modua arautzea.

2. Artikulua.- Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra da, alkateak 2019ko irailaren 10ean emandako eskuordetze Dekretuaren arabera.

3. Artikulua.- Aurrekontuko diru hornidura.

Deialdi honen helburuak lortzeko 3.000 euroko diru kopurua aurreikusi zen 2023ko ekitaldiko aurrekontuaren ondorengo partida honetan:

-02.480.02.231.03 2023 “Begiraleak dirulaguntzak-Gazteria”

4. Artikulua.- Interpretazioa eta araubidea.

Dirulaguntza emateko ardura duen organo berari dagokio oinarri hauen interpretazioaren harira sortzen den edozein zalantzari buruz erabakitzea.

Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua, eta ondorengo erredakzioak, aplikatuko dira.

5. Artikulua.- Publizitatea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdia eta oinarri arautzaileak eta haien babesean emandako dirulaguntzak udalaren web orrian www.hernani.eus/eu/dirulaguntzak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAOn) eta, Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalen argitaratuko dira.
(<http://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/ge/eu/index>)

II KAPITULUA

DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUERAK ETA ONURADUNAK

6. Artikulua. Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta gastuak.

Deialdi honen ondorioetarako, diruz lagungarriak izan daitezkeen jarduerak izango dira:

*Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako begirale titulu ofiziala eskuratzeko ikastaroak, euskaraz eginak eta 2023 urtean amaituak.

*Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako zuzendari titulu ofiziala eskuratzeko ikastaroak, euskaraz eginak eta 2023 urtean amaituak.

7. Artikulua.- Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa eta diruz lagunduko diren gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gehieneko kopurua:

*Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako begirale titulua lortzeko ikastaroen kasuan: ikastaroaren kostuaren % 50, gehieneko kopurua 200 euro izanik.

*Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako zuzendari titulua lortzeko ikastaroen kasuan: ikastaroaren kostuaren % 60, gehieneko kopurua 200 euro izanik.

Bestalde, EZ dira diruz laguntzeko moduko kostutzat hartuko:

*Oro har, argi eta garbi definituta ez dauden gastuak edo oinarri hauetako helburuak lortzeko helburu zuzena ez dutenak.

8. Artikulua.- Onuradunak.

Dirulaguntza hauen onuradunak izateko aukera izango dute haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako begirale edo zuzendari titulu ofiziala eskuratzeko ikastaroa euskaraz egiten ari diren 18 eta 30 bitarteko gazte hernaniarrek.

9. Artikulua.- Onuradunek bete beharreko baldintzak.

- a) Hernanin erroldatuta egotea.
- b) Egiten ari den edo egin duen ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua egotea.
- c) Alderdi teorikoa gainditzea eta titulua araututako gehienezko epearen barnean lortzea.
- d) Foru Ogasuna eta Hernaniko Udalarekin zerga-betebeharretan egunean egotea.
- e) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan xedatutako egoeretan ez egotea.

10. Artikulua.- Beste dirulaguntzekiko bateragarritasuna.

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste edozein administrazioak edo erakunde publikok zein pribatuk emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek.

Helburu bererako beste laguntzaren bat jasotzen bada, laguntza guztien baturak ezin izango du gainditu diruz lagundutako jardueren kostua. Hori gertatuz gero, deialdi honen kontura emandako dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion zenbatekoan.

III KAPITULUA PROZEDURA

11. Artikulua.- Dirulaguntzak emateko prozedura

Oinarri hauetan aurreikusten diren diru laguntzak norgehiagoka-prozedura bidez tramitatuko dira.

Aurrekontu ahalmenaren baitan, Hernaniko Udalak aurrekontua handitu dezake, baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak onartu ahal izateko. Horretarako, indarrean dagoen legeriaren arabera eta finantza-erabilgarritasuna kontuan hartuta, aurrekontu-aldaketa espedientearen tramitatu beharko da. Aurrekontu-kreditua handitzearen ondorioz laguntzen hasierako zuzkidura handitzen bada ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea hura eraginkorra izateko.

12. Artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

Eskaerak aurkezteko epea Oinarriak eta Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023. urtea amaitu artekoa izango da. Eskaera-orri normalizatua egoki betea aurkeztu beharko da udal erregistroan, edota 39/2015 Legeak zehaztutako modu eta tokietan.

1- Telematikoa
Telematikoki www.hernani.eus atariaren bidez.

2- Aurrez aurre
hhz-Herritarren Harrera Zerbitzua 943 33 70 00
Udaletxeko beheko solairuan.

13. Artikulua.- Eskabideak: dokumentazioa.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Hernaniko Udalak zuzenean kontsultatuko du Gipuzkoako Foru Ogasunean, eskatzailea horren aurka azaltzen ez bada, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, eskatzaileak laguntza eskuratzeko baldintzak betetzen ote dituen egiaztatzeko behar den informazioa, bereziki Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak egunean dituen egiaztatzekoa. Udaleko datuak ofizioz egiaztatuko dira.

Dirulaguntza hauek jaso ahal izateko, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte eskatzaileek:

- a) Dirulaguntza-eskabide normalizatua, behar bezala beteta eta sinatuta.
- b) Eskatzailearen Nortasun Agiriaren edo horren baliokidearen fotokopia.
- c) Ikastaroaren matrikula ordaindu izanaren agiria.
- d) Ikastaroa antolatu duen aisialdi eskolaren ziurtagiria, adierazten duena alderdi teorikoa gainditu duela.
- e) Eskatzailearen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria.

Nolanahi ere, aurkeztutako jarduerari dagokion dokumentazioaz gainera, Udalak egoki jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die eskatzaileei, aurkeztutako jarduera baloratu ahal izateko.

Eskatzaileak uko egiten badio udalak bere datuak zuzenean NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez kontsultatzeari, baldintzak betetzen ote dituen ala ez egiaztatzeko, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

14. Artikulua.- Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak zuzendu ez badira, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.

15. Artikulua.- Bideratzea.

Espediente hauek tramitatzea eta dirulaguntzak ematea Udalaren Haur eta Gazteria Arloaren ardura izango da. Unitate horrek ofizioz egingo ditu ebazpen-proposamena egiteko oinarritzat hartu behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

16. Artikulua.- Ebazpena.

Gudarien Plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus

Diru laguntzak ebazteko organo eskuduna alkatea izango da. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkeztu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe horren barnean ebazpenik eman ez bada, eskabidea baztertua izan dela ulertuko da, eta dagozkion errekursoak jarri ahal izango dira.

Eskaera aurkezteak ez du, berez, dirulaguntza jasotzeko eskubiderik ematen, eta dirulaguntza orok berezkoa duen izaera diskrezionalaren baitan egongo da dirulaguntza ematea.

Dirulaguntza ematea edo ez ematea erabakiko duen alkate-ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio, administrazioarekiko auzi-errekursoaren aurretik, ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, edo bestela, Donostiako Administrazio-azietarako Epaitegian zuzenean inpugnatu daiteke, jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

17. Artikulua.- Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntza modu honetan ordainduko da:

Deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztenei bakarrik ordainduko zaie eta, betiere, gastua egin eta frogatu ondoren. Dirulaguntza emango da ordainketa bakar baten bidez.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, hura bakarrik hartuta edo beste Herri Administrazio batzuen edo beste Erakunde Publiko edo pribatu batzuen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batuta, ez da, inola ere, onuradunak egindako jardueraren kostua baino handiagoa izango.

Jarduerak, dirulaguntzarekin ez ezik, beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin finantzatu badira, funts horien zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira eta diruz lagundutako jardueretarako erabili direla egiaztatu beharko da justifikazioan.

18. Artikulua.- Onuradunaren betebeharrak.

*Dirulaguntzaren xede izan den jarduera osorik burutzea.

*Dirulaguntza zertarako eman den, hartarako erabiltzea.

* Udalak diruz lagundutako jarduera bera egiteko beste dirulaguntzarik eskuratu bada, udalari jakinaraztea.

*Laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten guztientzat, oro har, indarrean dagoen araudian ezarrita dauden betebeharrak guztiak betetzea.

IV. KAPITULUA KONTROLA ETA PUBLIZITATEA

19. Artikulua.- Diru laguntzen publizitatea.

Dirulaguntzen publizitateari dagokionean, bete egingo da azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. eta 20. artikuluek eta abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikulua xedatutakoa.

20. Artikulua.- Ikuskaritza eta kontrola.

Onuradunak behartuta egongo dira dirulaguntzen kudeaketa zuzena bermatzera bideratuko egiaztapen guztiak erraztera. Halaber, dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jardueren mende daude.

21. Artikulua. Ez-betetzea

Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada dirulaguntza berraztertu egingo da eta, hala badagokio, baliogabetu edo emandako diru kopurua itzuli egin beharko da, dirulaguntzak emateari buruzko udal araudian aurreikusitako moduan.

Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, eman zuen organoaren eskariz, eta hala badagokio, emandako dirulaguntza baliogabetzea, murriztea edo itzultzea erabaki ahal izango da, behar bezala arrazoituta. Prozeduraren izapideetan interesatuaren entzute eskubidea bermatuko da.

22. Artikulua.- Adostasun-adierazpena

Dirulaguntzaren eskaera aurkeztean, eskatzaileak bere adostasuna ematen du eta adierazten du oinarri hauek ezagutzen dituela, deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta deialdia oso-osorik onartzen duela.

23. Artikulua.- Datu pertsonalen babesa

Eskatzaileak adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere adostasunarekin jasotzen direla, eta onartzen duela datu horiek modu automatizatuan trata daitezela, eta baimena ematen duela datu horien erabilera udal-kudeaketara soilik mugatzeko, nahiz eta datu horiek beste administrazio publiko batzuei eta haien erakundeei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkien, Datu pertsonalak babesteko 2016ko apirilaren 27ko EB 2016/679 Erregelamendu Orokorraren 6.1.e. artikuluan aurreikusitako kasuetan